



Arartekoaren 2022S-316-22 Ebazpena, 2022ko abuztuaren 8koa. Horren bidez, Durangoko Udalari iradoki dio kexagileari igorritako 2021eko OHZren ordainagiriaren errenergua ofizioz errebokatzeke; izan ere, etxebizitza ohiko bizilekua ez bada ere, egiaztatu dira errenerguru hori ez aplikatzeko irizpideen 11. apartatuan ezarritako gutxieneko kontsumoak.

Aurrekariak

1. Familia kexagileak Arartekoaren esku-hartzea eskatu du, eta adierazi du ez dagoela ados 2021eko ondasun higiezinaren gaineko zergaren (OHZ) ordainagiriaren kuota likidoari % 50eko errenerguru aplikatu izanarekin.

Adierazi zuten 2021eko urriaren 15ean berraztertze-errekurtsoa jarri zutela errenerguru hori kobratzearen aurka; Durangoko Udalak errekurtsoa ezetsi zuen, energia-kontsumoa ez baitzen ezarritako gutxienera heltzen.

Zehazki, ebazpenak honako zioen:

"(...) siendo así, el recurrente aporta justificación mediante factura de suministros energéticos y de agua del inmueble gravado emitidos por LEAKO e IBERDROLA respectivamente, en la que viene a recoger el historial de consumos de parte del año 2021. En ellas se acredita llegar a un consumo anual superior a 2,47 metros cúbicos en agua (9,56 metros cúbicos) y un consumo energético de luz de 249 kilovatios por hora. Dicho consumo energético no alcanza el mínimo exigido en los criterios de aplicación del recargo de vivienda vacía, que establecen un consumo mínimo de 291 kilovatios hora."

2. Zergadunak kexan adierazi zuen ez zegoela ados hartutako erabakiarekin, eta azpimarratu zuen 2021eko urriaren 15ean egin zituela alegazioak. Hortaz, 2021ean etxebizitzan egindako kontsumoei dagozkien uraren eta argiaren fakturak soilik aurkeztu ahal izan zituen; faktura horiek ordura arte igorri zizkietenak dira eta 2021. urteko lehenengo zortzi hilabeteetan ordaindutako kontsumoei zegozkien. Era berean, adierazi zuen aurkeztutako errekurtsoan Durangoko Udalari jakinarazi ziola etxebizitzaren salerosketa-kontratu pribatu bat sinatu zuela eta aurreikusita zegoela eskualdaketaren eskritura publikoak 2021eko urriaren amaieran sinatzea.

Horrez gain, ukitutako pertsonak hauxe adierazi zuen kexan: *"la norma establece un consumo mínimo mensual junto al consumo mínimo anual. Como es obvio, en el momento de presentar mi recurso en octubre, yo no disponía de las facturas de agua y electricidad correspondientes a la totalidad del año 2021. Por ello, lo natural sería tomar las referencias de consumo mínimo mensuales."*





(...) Evidentemente, el consumo eléctrico ha continuado produciéndose en los meses sucesivos y hoy puedo aportar las facturas de septiembre y octubre cuyo consumo facturado fue de 27 y 25 kilovatios hora respectivamente. Esto llevaría a un consumo en diez meses de 301 kilovatios hora, superior al mínimo anual exigido."

3. Arartekoak txosten-eskaera egin zion Durangoko Udalari; horren bidez, eskatu zion baloratu zitzan familia kexagileak egindako alegazioak. Igorritako informazio-eskaerarekin batera familia kexagileak 2021eko urrira arte (higiezina eskualdatu zen datara arte) ordaindutako argiaren ordainagiri guztien kopia jasotzen zuen fitxategia bidali zen. Dokumentazio horretan adierazitakoaren arabera, higiezinean egindako argiaren kontsumoa 301 kWh-ra igo zen.
4. Alabaina, Durangoko Udalak, egindako erantzun-idazkian, hasierako balorazioa berretsi zuen eta hauxe adierazi zion Arartekoari: *"el interesado es obligado tributario al pago del recargo por vivienda vacía, conforme a lo establecido en la ordenanza fiscal del Impuesto sobre Bienes Inmuebles de este Ayuntamiento."*

Are gehiago, zehaztu zuen OHZ tokiko zerga dela, eta tokiko erakundeek erabili ditzaketela Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen nahiz Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen bidez eman zaizkien ahalak; halaber, adierazi zuen arauzko ahalak baliatuz eta Ondasun Higiezinen gaineko Zergari buruzko maiatzaren 18ko 4/2016 Foru Arauaren 10. artikulua esparruan Durangoko Udalak errekaratu hori txertatu zuela OHZ arautzen duen ordenantza fiskalean.

Azkenik, honako hau jakinarazi du: *"de acuerdo con la documentación aportada y tal y como se indicó en la resolución del recurso interpuesto por el interesado «el recurrente aporta justificación mediante factura de suministros energéticos y de agua del inmueble gravado emitidos por LEAKO e IBERDROLA respectivamente, en la que viene a recoger el historial de consumos de parte del año 2021. En ellas se acredita llegar a un consumo anual superior a 2,47 metros cúbicos en agua (9,56 metros cúbicos) y un consumo energético de luz de 249 kilovatios por hora. Dicho consumo energético no alcanza el mínimo exigido en los criterios de aplicación del recargo de vivienda vacía, que establecen un consumo mínimo de 291 kilovatios hora.»"*

Gogoetak

1. Arartekoaren esku-hartzea ukitutako pertsonak egindako uzi zehatzera mugatu behar da. Horretarako, kexaren planteamenduari heldu behar zaio, bat etorriz Ondasun higiezinen gaineko zerga arautzen duen Ordenantza Fiskalean nahiz





etxebizitza hutsagatiko errenergua aplikatzeko 2021eko apirilaren 14an onetsitako irizpideetan ezarritakoarekin; izan ere, Durangoko Udalak zergadunak egindako errekurtsioa ezesteko arrazoi gisa erabili du bertan jasotakoa. Halaber, Durangoko Udalaren jarduketa oinarritzen duen foru-arauak ezarritakoari buruz herritarrek egindako kexari ere heldu behar zaio.

Horrenbestez, maiatzaren 18ko 4/2016 Foru Arauaren, Ondasun Higiezinaren gaineko Zergari buruzkoaren, 10.8. artikulua izan behar dugu abiapuntu. Artikulu horrek honako hau dio:

“Ondasun higiezinak bizitegi-erabilera dutenean, eta subjektu pasiboaren edo hirugarrenen ohiko egoitza ez direnean –hirugarrenen kasuan errentamenduz edo lagapen bidez–, udalek 100eko 50erainoko errenergua ezarri dezakete zergaren kuota likidoaren gainean. Errenergua zerga honen subjektu pasiboari exijituko zaie, haren sortzapena zerga sortzen den une berean gertatuko da, eta urtero likidatuko da, kuotarekin batera.

Bizitegi-erabilera duen ondasun higiezintzat hartuko da, hura kokaturik dagoen udalerriko erroldan egiaztatuta badago bertan bizi den/direnen ohiko bizilekua dela Ondasun Higiezinaren Zergaren sortzapen datan.

Errenergua honen aplikazioaren ondorioetarako, etxebizitzaren eranskinak barruan sartuko dira finka erregistral bakarra osatzen badute.

Aurrekoa gora behera, udalek beren ordenantza fiskaletan ezarri dezakete zer kasutan ez den aplikatuko apartatu honetan aipatzen den errenergua.”

2. 2021ean ondasun higiezinaren gaineko zerga arautzen zuen Durangoko Udaleko ordenantzaren 12.8. artikulua haxe dakar aipatutako errenergua ezartzeari buruz:

“8. Ondasun higiezinak bizitegi-erabilera dutenean, eta subjektu pasiboaren edo hirugarrenen ohiko egoitza ez direnean –hirugarrenen kasuan errentamenduz edo lagapen bidez–, Durangoko Udalak %50eko errenergua ezarriko du zergaren kuota likidoaren gainean. Errenergua zerga honen subjektu pasiboari exijituko zaie, haren sortzapena zerga sortzen den une berean gertatuko da, eta urtero likidatuko da, kuotarekin batera.

Bizitegi-erabilera duen ondasun higiezintzat hartuko da, hura kokaturik dagoen udalerriko erroldan egiaztatuta badago bertan bizi den/direnen ohiko bizilekua dela Ondasun Higiezinaren Zergaren sortzapen datan. Nolanahi ere, errenergua honetaz salbuetsita egongo dira ohiko bizileku gisa erabiltzen ez





diren bizitegi erabilerako ondasun higiezinak, betiere, honako inguruabar hauek ematen badira:

- a) Ostatatze, pentsio, ostatu eta antzekoen gisa erabiltzen direnak.*
- b) Erakunde publikoren baten esku utzitakoak alokatu ditzan.*
- c) Ikasleei alokatuak.*
- d) Hirugarren adinekoen egoitzetan erroldaturiko pertsonen titulartasuna duten etxebizitzak. Halaber, salbuetsita geratuko dira menpekotasun egoeran dauden pertsonen arretaz arduratzen direnak edo ezkontideak, bikoteak edo odolezko ahaideak direnak ahaidetasun hirugarren mailara arte.*
- e) Konponketak edo egokitzapen handiak behar dituzten higiezinak, betiere, titularrek baliabide ekonomiko nahikorik ez badute konponketak edo egokitzapenak aurrera eramateko.*
- f) Transmisio bidean dauden etxebizitzak, betiere, transmisioaren sortzapen-dataren aurreko urtealdiari badagokio.*

Errekargu hau aplikatzerako orduan kontuan hartuko dira etxebizitzan eranskinak, betiere, eranskinak eta etxebizitza finka bakar modura agertzen badira erregistratuta.

Durangoko Udalak, ofizioz, zerga honetako subjektu pasiboen zerrenda aterako du, hau da, ohiko egoiliar moduan erregistratuta ez dauden bizitegi erabilerako ondasun higiezinaren titularrena.

Errekarguaren berri jakinaraziko zaie subjektu pasibo bakoitzari dagokion administrazio-prozedura tramitatu eta gero. Ebazpen honen aurka egokien deritzen errekurso edo erreklamazioak aurkez ditzakete indarrean dagoen araudiak ezartzen duen eran.”

3. Era berean, Durangoko Udalak errekkargu hori aplikatzeko irizpide batzuk onetsi zituen 2021eko apirilaren 14an; hauxe ezartzen dute:

“Tratándose de bienes inmuebles de uso residencial que no constituyan la residencia habitual del sujeto pasivo o de terceros por arrendamiento o cesión de su uso, el Ayuntamiento de Durango, exigirá un recargo del 50% de la cuota líquida del Impuesto. Dicho recargo, que se exigirá a los sujetos pasivos de este tributo, se devengará en el mismo momento que el impuesto sobre el que se aplica y se liquidará anualmente, conjuntamente con la cuota. A efectos de la aplicación del presente recargo, se entenderá por inmuebles de uso residencial los locales que están recogidos como de uso o destino de vivienda en el Catastro. Se incluirán los anexos a la vivienda siempre que



formen una finca registral única. A los mismos efectos, se presumirá que un inmueble de uso residencial es residencia habitual cuando a fecha de devengo del Impuesto, en el padrón del municipio donde radique la vivienda conste que constituye la residencia habitual de su o sus ocupantes.

NO se aplicará el recargo en los siguientes casos:

- 1. Los que gocen de alguna bonificación tributaria en el impuesto.*
- 2. Los afectos a actividades dados de alta en la matrícula del impuesto sobre Actividades Económicas del Ayuntamiento.*
- 3. Las viviendas que han estado arrendadas (únicamente las arrendadas, no se incluyen las cesiones de uso) más de 9 meses en el año anterior del devengo del impuesto. Se deberá presentar la siguiente documentación para su aplicación:*
 - a) Solicitud firmada por el interesado.*
 - b) Contrato de alquiler debidamente fechado y firmado. En dicho contrato deberá constar, que el inmueble tendrá como destino o uso el de vivienda.*
 - c) Justificantes bancarios de cobro de las rentas del año anterior al del devengo del impuesto. Se dará conocimiento de dichos contratos de alquiler a la Hacienda Foral de Bizkaia.*
- 4. Las viviendas cuya titularidad corresponda a personas empadronadas en Residencias de la Tercera Edad. Esta exención se aplicará únicamente a la vivienda que, con carácter previo al ingreso en la Residencia, tuviera la condición de vivienda habitual del residente. Esta circunstancia se acreditará mediante la presentación del correspondiente certificado de la Residencia en el que se indicará la fecha de ingreso.*
- 5. Las viviendas que forman parte de una herencia, durante el periodo de 2 años desde el fallecimiento de su titular. Esta circunstancia se acreditará mediante la presentación del correspondiente certificado de defunción.*
- 6. Las viviendas adquiridas en noviembre o diciembre del año anterior al año de devengo del impuesto, que a 1 de enero no figure nadie empadronado, pero que el trámite de empadronamiento se ha realizado en el primer trimestre del año de devengo del impuesto.*
- 7. Las viviendas situadas en edificios formalmente declarados en situación legal de ruina.*
- 8. Las viviendas que forma dos fincas registradas independientes en el Catastro urbano pero que son utilizadas como una vivienda única. El informe de valoración de dicha circunstancia se realizará por los servicios técnicos municipales competentes.*
- 9. Las viviendas ubicadas tanto en suelo no urbanizable como en suelo urbanizable.*
- 10. Las viviendas ubicadas en edificios calificados urbanísticamente como fuera de ordenación.*



11. Las viviendas que no tienen la condición de residencia habitual pero que acreditan consumo prolongado:

a) Consumo de agua igual o superior a 0,21 metros cúbicos por vivienda y mes o igual o superior a 2,47 metros cúbicos por vivienda y año.

b) Consumo de electricidad igual o superior a 24 kilovatios hora por vivienda y mes o igual o superior a 291 kilovatios hora por vivienda y año.

12. Las viviendas cuya titularidad corresponden a personas que por necesidades de cuidado personal acreditado mediante valoración de dependencia, convivan y estén empadronadas en la vivienda de algún familiar responsable de dicho cuidado. Esta exención se aplicará únicamente a la vivienda que con carácter previo al traslado a la vivienda familiar, tuviera la condición de vivienda habitual de la persona dependiente."

4. Irizpide horiek herritarrek 2021ean aurkeztutako erreklamazioak ebazteko erabili ziren. 2022. urterako, Ondasun higiezinaren gaineko zerga arautzen duen Ordenantza Fiskalaren 12.7. artikuluan jaso eta txertatu dira aurreikuspen zehatzak.

5. Nolanahi ere, azaldutakoarekin bat etorritik, 2021eko apirilean onetsitako irizpideak dira Durangoko Udalak berraztertze-errekurtsoaren ebazpenean aplikatu zituenak eta, gainera, hasiera batean hartutako erabakia erakunde honen aurrean berresteko erabili ditu Durangoko Udalak. Hala, tokiko erakundeak emandako azalpenetatik ondorioztatzen da zergadun horren eskaera ez onartzeko arrazoi bakarra hauxe dela: *"consumo energético no alcanza el mínimo exigido en los criterios de aplicación del recargo de vivienda vacía, que establecen un consumo mínimo de 291 kilovatios hora"*.

Arartekoa ez dator bat horrekin; izan ere, tokiko erakunde horretan aurkeztutako dokumentazioaren bidez aurkeztutakoaren arabera, 2021eko urrira arte higiezinaren fakturatutako kontsumoa irizpideetan ezarritako gutxieneko kontsumora (291 kWh urteko) heltzeaz gain, hura gainditu egin zuen, 301 kWh-ra heldu baitzen.

Arartekoak ontzat hartu du zergadunak aitortu izana errekurtsoa hasi zuenean ezin izan zuela aurkeztu 2021eko irailean eta urrian etxebizitzan egindako kontsumoei buruzko dokumentazioa; izan ere, kontsumo horiek artean ez ziren fakturatu eta ordaindu. Hori dela eta, kexarekin batera aurkeztutako dokumentazioa dokumentazio garrantzitsutzat jo behar da, ebazpenean egindako akats bat agerian uzteko balio duen dokumentazio garrantzitsutzat, alegia. Hau da, Arartekoaren arabera, dokumentazio berriak aipatutako zergadunaren eskaera baiesteko balio beharko luke.





6. Zergadunak, bere errekurtsioan, defendatu zuen bidezkoa zela errekar gutik salbuestea; izan ere, etxebizitzan egindako energia elektrikoaren eta uraren kontsumoen gaineko dokumentazioa aurkeztu ahal izan zuen hilabetei dagokienez —urtarriletik abuztura arteko aldia—, egiaztatu zuen hilabete guzti horietan etxebizitza eta hilabete bakoitzeko kontsumoa ezartzen duen irizpideak finkatutako elektrizitatearen kontsumo bera edo handiagoa egin izana.

Kexa honetan, gainera, honako berezitasun hau gertatu da: higiezina saldu zen 2021eko urrian. 2021eko ekitaldi osoan zehar, zergaren subjektu pasiboa etxebizitzaren eskualdatzailea izan zen, 2021eko urtarrilaren 1ean bera baitzen etxebizitzaren jabea eta, hortaz, OHZtik eratorritako urteko kuota ordaintzera derrigortuta zegoena. Bada, zergadun bera honako egoera honetan zegoen: higiezina saldu izanaren ondorioz, 2021eko urri-amaieratik ez zeukan etxebizitzarako sarbiderik eta, beraz, ezin zuen etxebizitzan egindako kontsumoak pilatzen jarraitu, ezta hornidura berriengatik kontsumo berriak egiaztatu ere.

7. Aplikatu beharreko irizpideen 11. apartatuan ezarritakoari jarraikiz, gaur egun Ondasun higiezinaren gaineko zerga arautzen duen Ordenantza Fiskalaren artikuluetan jasota daude:

“Ohiko bizilekua ez izan arren, gutxieneko kontsumo hau egiaztatzen duten etxebizitzak:

- a. 0,21 metro kubiko edo gehiagoko ur-kontsumoa etxebizitza eta hilabete bakoitzeko, edo 2,47 metro kubiko edo gehiagoko ur-kontsumoa etxebizitza eta urte bakoitzeko.*
- b. Etxebizitza bakoitzeko 24 kilowatt orduko edo gehiagoko elektrizitate-kontsumoa, eta etxebizitza eta urte bakoitzeko 291 kilowatt orduko edo gehiagoko elektrizitate-kontsumoa.”*

Aintzat hartu behar dugu irizpidea azaltzeko modua ez dela nahikoa argia eta zehatza; gainera, ez du eskatzen hileroko eta urteroko kontsumo elektrikoaren bi magnitude horietara heltzea errekar gutirik ez aplikatzeko.

Administrazioek saihestu egin behar dute eurek defendatzen dituztenetik aldentzen diren interpretazioak sor ditzaketen aipamen anbiguoak erabiltzea, batez ere dirulaguntzen arloan eta, bereziki, zergen esparruan, irizpide objektiboei jarraikiz. Horretarako, administrazioek eta, kasu honetan Durangoko Udalak, arautzeko ahalmena dute eta, hortaz, errekar guti ez aplikatzeko kasuak zehatz-mehatz eta argi eta garbi definitzeko gaitasuna ere bai.





Ezin gera daiteke araua interpretatzen duenaren esku errekaruaren onuradun zein gerta daitekeen erabakitzea. Hortaz, kasuak geroz eta modu objektiboagoan mugatzen dira eta, kasu honetan, etxebizitza bakoitzak egin beharreko hileko eta urteko kontsumoen gaineko aipamen argia eta zehatza eginez konpondu behar zen. Interpretazio-irizpideak ez zuen zehaztaper hori jaso, eta ordenantza fiskalaren 12.7. artikulua ere ez du hori jasotzen.

Horren harira, aitzat hartu behar da ez gaudela zergadunentzat eraginik ez duten barne-irizpide administratibo batzuen aplikazioaz ari. Aitzitik, 2021ean, interpretazio-irizpide horiek eraginak izan zituzten hirugarrengan —OHZren zergadunengan—, eta haiek jakin behar zuten errekarua ez aplikatzeko aintzat hartuko ziren kasuen irismen zehatza.

Arau juridikoak interpretatzeko oinarriko arauak Kode Zibilaren 3.1 artikuluan daude jasota: *“Arauak euren hitzez-hitzeko esanguraren arabera interpretatuko dira, betiere, testuinguruari, aurrekari historikoei eta legegintzazko aurrekariari, eta arau horiek aplikatu behar diren garaiko gizarteerrealitateari lotuta, eta, batik bat, arauen espiritua eta xedea kontuan hartuta.”*

Beste hitzetan, testu arautzaile batean adierazitakoaren berezko zentzua interpretazio ororen abiapuntua da. Doktrinaren arabera, ohiko hizkerak duen zentzuan ulertu behar da: *“el que de modo directo resulta de las reglas del buen hablar”* (F. De Castro).

Doktrina zientifikoaren hitzetan, indarreko ordenamendu juridikoak sortu den arazoari une jakin batean ematen dion irtenbide zuzen bakarra bilatzeko prozesua interpretatzeak guztien esku egon behar luke.

Horri dagokionez, ez dugu ahaztu behar arauak interpretatzea ez dagokiela, soilik, botere publikoei, baizik eta baita biztanle guztiei ere; horiek guztiak, gainera, “Konstituzioaren eta gainerako ordenamendu juridikoaren mende daude” (Espainiako Konstituzioaren 9.1 art.). Horregatik, arauak oso argia izan behar luke, hain argia ezen inork ez bailuke interpretazio baimenduren baten beharrik haren edukia berri izateko, izan ere, zuzenean ordenamenduari lotuta dagoenez, biztanleek ezin esan dezakete, salbuespenezko kasu batzuetan izan ezik, araua bete nahi ez eta horren berri ez dutenik.

Badakigu administrazio horrek beste inork baino hobeto dakiela zeintzuk diren errekarua aplikatu barik utzi nahi zituen kasuak. Hori gorabehera, gogorazi behar dugu, doktrinak ongi asko dioen bezala, arau baten egileak ez duela inolako ahalmenik manuen esanahia modu loteslean interpretatzeko, behin manuak argitaratuta. Esparru horretan, ez da aplikatzen norbera dela bere hitzak





interpretatzeko egokiena. Alderantziz, ordenamenduaren objektibotasunak maila berean jartzen ditu arauaren egilea eta hori interpretatzen dutenak.

Hori hala izatearen arrazoia da ez dagoela inolako eragozpenik arauaren egileak testuarekin batera interpretaziozko adierazpenak aurkezteko. Durangoko Udalak eskura izan zuen errekar gurik behar ez duten kasuen inguruko zalantza oro argitu ahal izateko aukera, aipatutako bi kontsumoak egitea beharrezkoa dela adierazten duen betekizuna jasoz; alabaina, ez du horrelakorik egin.

8. Azkenik, errekar gur horren osaerari dagokionez, Bizkaiko Lurralde Historikoan Bizkaiko Foru Auzitegi Ekonomiko Administratiboaren 2019ko azaroaren 20ko ebazpena aipatu behar da. Ebazpen horretan, Bizkaiko Foru Auzitegi Ekonomiko Administratiboak adierazi zuen Bizkaiko foru-legegileak ez zuela errekar guren salbuespena ohiko bizilekuaren kontzeptuarekin lotu, bizilekuaren kontzeptuarekin baizik, eta hauxe zehaztu zuen: *“En definitiva, se observa con claridad que «residencia habitual» es un concepto repetido a lo largo de toda la normativa tributaria, cuyo uso se encuentra consolidado y ha sido objeto de definición expresa, por lo que si el legislador del Impuesto sobre Bienes Inmuebles en el Territorio Histórico de Bizkaia no ha incluido el adjetivo «habitual» a la hora de determinar en qué supuestos se aplica el recargo, debe entenderse que lo ha realizado de forma expresa y deliberada, de tal modo que su sentido no incluye los elementos a los que normalmente la normativa tributaria liga la definición de la residencia habitual, como son la permanencia de un mayor número de días del período impositivo en el territorio o la determinación del principal centro de intereses considerado como el territorio donde el contribuyente obtiene la mayor parte de la base imponible del Impuesto sobre la Renta de Personas Físicas...”*

Ondorioz, aintzat hartuta OHZ arautzen duen foru-arauan nahiz udal-ordenantza fiskalean "bizilekua" kontzeptua aipatu dela bizilekuaren irismena zehaztu barik, aurkeztutako erreklamazio ekonomiko-administratiboa baietsiko da eta hauxe ondorioztatuko da: *“la prueba aportada por la parte actora es suficiente para probar que se trata de una vivienda en la que el obligado tributario reside en estancias temporales. En consecuencia, atendiendo a la prueba aportada y a la regulación contenida en la Ordenanza Fiscal reguladora del Impuesto sobre Bienes Inmuebles en el municipio de Bakio, en la que únicamente se señala la aplicación del recargo a aquellas viviendas que no constituyan la residencia del sujeto pasivo, sin especificar los requisitos que debe cumplir dicha residencia a efectos de la aplicación del recargo, procede declarar improcedente el recargo aplicado.”*





Horregatik guztiagatik, iradokizun hau egiten dugu, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak –erakunde hau sortu eta arautzekoak– 11 b) artikuluan ezarritakoaren arabera:

IRADOKIZUNA

Durangoko Udalak ofizioz errebokatzea kexagileari 2021eko OHZren ordainagirian igorritako errenergua; izan ere, eragindako familiak egiaztatu du errenergua hori ez aplikatzeko ezarritako irizpideen 11. apartatuan finkatuta dagoen energia-kontsumoaren gutxieneko kontsumoa egin izana.

